

# Hitz eta Pitz

Elkarrizketa:

SEVE CALLEJA



SEVE... TOPAGUNE

*Seve Calleja, 1953an Zamoran jaiotako bilbotarra. Filosofia eta Letretan lizenziatua da eta gaur egun Bilboko institutu batean ari da irakasle lanetan. Literatur sortzaile emankor eta saritua («Ignacio Aldecoa», «Lizardi», «Pío Baroja») eta Haur eta Gazte Literaturaren ikertzailea. Egunkari eta aldizkarietan hamaika kritika eta didaktika artikulua idatzi ditu. Bere lanak euskaraz, gaztelaniaz eta beste hizkuntza batzuetan argitaratu dira. Kontu asko ditu esateko topagune honetan.*

**Behinola:** Zurgai poesia-aldizkariaren inguruan hasi omen zinen idazle kontuetan. Orain, ordea, Haur eta Gazte Literaturaren inguruan ezagutzen zaitugu batez ere. Emaiguzu zure has-tapen eta bilakaeraren berri.

**Seve Calleja:** Badira hogeitun urte *Zurgai* aldizkaria sortu zela. Garai hartan irakasle hasi berria nintzen ni eta pilak ondo beteta nekartzan unibertsitatetik. Dena zen berria niretzat: ikasgelak eta jasotako teoria guztia –teoria hutsa, jakina–ikasgeletan emateko gogoia. Eta, agian, teoria hori praktikara eramateko gogo bizi horregatik, irakas-kuntzan jada banuen sormena beste bide paralelo batetik ere bideratzeko espazioa aurkitu uste

izan nuen «*Poetas por su pueblo*» taldean. Poesia, askorentzat, literatur entrenamendurako zelaia izan ohienez, poeta nintzela sinetsita, aldizkarian ibili nintzen. Ikasi egin nuen bertan, jendea ezagutu nuen, nire lehen lantxoak argitaratu nituen, egile bihurtu nintzen. Narratzaile handi asko zaildu izan dira poesian eta poesia aldizkarietan: Oscar Wilderengandik Atxagarenganaino. Baina irakasle izateagatik ordaindu egin behar nuen tertulietatik kirats akademikoa aldentzera jotzen duten haien artean. Eta nik horixe nahi nuen; tertulietan parte hartu. Izan ere, beti ulertu izan baitut idazketa, afizioa denean behintzat, topagune bat bezala. Eta halaxe eutsi nion, egun batean,

83an, ipuinen «Ignacio Aldecoa» saria irabazi nuen arte. Eta sinetsi egin nuen. Prosa idatz nezakeela sinetsi nuen eta, ordudanik, ez dut bertso bakar bat ere idatzi. Beti itzuli ohi gara, ordea, lagunengana, eta gaur, hogeitertu geroago, lagun dut oraindik *Zurgai*. Halaxe erakusten du aldizkari horren azken zenbakiak –haur poesiari buruzkoa–, parte hartze sakona izan baitut.



Behin Lucas

**Behinola:** «Ignacio Aldecoa» saria aipatu duzu. Beste lehiaketa batzuetan ere izan zara irabazle. Eta, oker ez banago, oraindik ere hartzen duzu parte lehiaketetan. Hauek hainbeste zeresan ematen duten une honetan, zein da lehiaketekiko zure esperientzia eta iritzia?

S. C.: Literatur sari bat irabaztea, norberarengan sortzen duen irrikaz gain, egiten ari zarena baliozkotzeko modu bat da. Ezagutzen ez zaituen eta printzipioz zuk baino gehiago dakien jendeak zure obra ona dela esaten dizu bat-batean. Eta gainera ordaindu egiten dizute, eta idazleen eserlekuan kokatzen zaituzte. Hori hasberritan gertatzen bazaizu, zure itxaropen eta aukerak zabaldu egiten dira: sinetsi egiten duzu. Niri halaxe gertatu zitzaidan eta, sarietan, argitaratzeko lasterbide tentagarria aurkitu nuen. Eta argitaratzea da idazten duenarentzat lanik neketsuena. Eta noizean behin, berriz saiatzeko naiz, bai, badakidan arren sariak ez direla lege-hitza, jolas bat baizik. Eta jolas horretan jokalariek, epaileek, jolas zelaia... dute hitza. Hala ere, lehiaketei jarri ohi zaizkien «baina» guztiekin, idazleak plazan jartzen dituzte sariak. Elikagarriak ez diren arren goxoak dauden janari horiek bezalakoak dira, dieta zaintzea eta ez pasatzea baino eskatzen ez

duten janari horiek bezalakoak. Aktore izan eta eskenatokira ez irritea, kirolari izan eta partidu osoan zehar aulkian egotea oso gogorra da, txalok ere hartzen baitute parte jolasean. Eta horixe da sari bat, zure lanari eginiko txaloa. Gainera, halakoetan ez dizu axola nork egiten duen txalo.

**Behinola:** Idazketa topagune bezala ulertzen duzula esan duzu, eta ez da hori entzuten dizudan lehen aldia. Azalduiguzu ideia hori.

S. C.: Irakurtzea bi aldiz bizi izatea dela esan du norbaitek, edo beste bizitza batzuk aurkitzea. Irakurketa bakarkako lana bada ere, beti egon ohi da liburuan hitz egiten digunarekin elkartzeko eta banatze prozesu bat. Eta gero idazteari ekiten diogunon artean ere gauza bera gertatzen da: bat gatoz, elkar maite dugu edo gorrotatu. Literaturaren zerarik onena, nahi dugunean sartu eta irten gaitzkeela da nire ustez. Gainera, irakurle-rik gabe ez dago literaturarik –hala zioen Octavio Pazek–, horrexegatik ikasi behar dugu irakurleekin egoten, irakurleak zaintzen. Eta horretarako, ikasgelak toki pribilegiatua dira. Agian horregatik egongo dira idazten duten hainbeste irakasle edo hainbeste idazle hobekien ezagutzen dituzten haienentzat idaztea erabakitzen dutenak. Hori gertatu zait niri.

**Behinola:** Irakaskuntza eta sorkuntza uztartu egin dituzu, beraz. Hel diezaigun hari honi. Irakasle zara Bigarren Hezkuntzan. Zure ustez, nola bultza daiteke literatura eskolatik/eskolan?

S. C.: Zer daukagun, horixe ematen dugu. Kutsatzen gaituzten birusak kutsatzen ditugu guk ere. Ez dugu inor irakurketaren onurez konben-

*«Literaturaren zerarik onena, nahi dugunean sartu eta irten gaitzkeela da»*

«Irakurtzea beharrezkoa eta derrigorrezkoa ez bada ere,  
handiagotu egiten digu bizitza»

tzituko, gu geu ez baldin bagaude benetan konbentzituta. Eta nire ustez, irakurtzea beharrezkoa eta derrigorrezkoa ez bada ere, handiagotu egiten digu bizitza. Logika honi jarraituz, Machadoren Juan de Mairena –nire erreferente didaktikoetako bat– imitatzen saiatzen naiz. Ez zen pose hutsa izan, beraz, proposamen didaktikoen nire lehen liburu hura, *Lecturas animadas*, haren zita batekin ikasleei eskaini izana, egunez egun hartzen baitut ontzat: *De buena fe os digo cuanto me parece que puede ser más fecundo en vuestras almas, juzgando por aquello que, a mi parecer, fue más fecundo en la mía*. Etengabe eta ahopean errepikatzen diot neure buruari barne maxima bezala.

**Behinola:** «Proposamen didaktikoen lehen liburu hura» aipatu duzu. Batetik sortu egiten duzu literatura, bestetik literaturaren didaktika aztertzen duzu. Nola lotzen dituzu bi zeregin horiek?

S. C.: Biak elkartzen saiatzen naiz, bai. Nola-bait esateko, gidatu eta mekanikaria izatea bezakoxea da. Edo, beharbada, mimesia izango da. Bizikletan ibiltzea gustatzen zaionari, Tourra jarraitzea gustatzen zaio eta, gainera, ikusle pasiboak baino interes gehiagorekin jarraitzen du. Baina honek ere baditu arriskuak: objetibitate eza, suhartasun larregi, mesfidantza...


**Behinola:** Garbi dago, irakaskuntzak erabateko eragina izan du zure obran.

S. C.: Dударik gabe. Ikasgelako eguneroko esperientzia hori gabe, erreferente asko ez nituzke izango:

nola pentsatu eta sentitzen duten irakurle bertualek, zer duten gustuko... Onartzen dut nire ikasleek eraman nautela Haur eta Gazte Literatura deitzen den eremu horretarantz. Ikasleek laguntzen didate Peter Pan izaten jarraitu nahi honetan. Peter Pan tontolapikoa edo zentzuzkoa, hori ez dakit. Ezta ere lehenago ere ba ote nintzen. Garbi dudana da Peter Pan honek errutina ezitzen laguntzen didala. Eta, aukeran, nahiago dut Peter Panen sindromea eramatea funtzionarioarena eramatea baino.

**Behinola:** Tontolapiko ala zentzuzko, zaren Peter Pan horrek, sarritan eman duzu aditzera klasikoekiko duzun interesa (aurreko *Behinolan* besteak beste). Antologiak prestatu eta gidatu izan dituzu. Zergatik interes hori? Era guztietako bildumak kalean ditugun une honetan ere somatzen al duzu behar edo gabezia hori?

S. C.: Klasikoen obra hedatzeko dudan interesa, nire ofizioa eta nire afizioa lotzea lortu izanaren froga da beharbada. Literatura irakasteak eredu klasikoetara jotzera behartzen du, zuk gustuko duzuna, edo gaztetan izan zenuena, zurekin ikasten dutenentzako ere ona dela pentsatzeagatik. Bestalde, antologiak –feriak edo kongresuak bezala– egokiak dira dagoen guztiaren zati bat erakusteko. Eta klasikoek jasaten dute hori, jasaten dute kofre txikitari sartuak izan eta bitrintan gordeak izatea beste batzuek deskubri ditzaten. Nik irakurri dudana ia poesia guztia antologia gidatuetan irakurri dut, eta nagusitan bakarrik –literarioki heldua izatearekin, alegia– izan ditut baliabideak laguntzarik gabe edonora joateko. Eskola-programa



Belén Lucas



bat oso estua da eta obrak aurkitzeko nerabeak duen ahalmena oso mugatua (normalki irakurle gazte handiak zera beretik asko irakurtzeko joera du). Beraz, klasikoak hedatzeko nire interes horretan badago irakaslearen tik moduko bat. Eta klasikoak, klasiko baldin badira, azken nobedadeak bezain bizirik daude. Ez du inork ukatzen gaur egun merkatu editoriala *buffet* erraldoi bat dela: asko dago eta denetik. Eta hori txarra izan daiteke ostalari eta tabernarientzat, ez ordea gonbidatuentzat. *Buffet* horretan, klasikoen obra, eskuarki, kalitate labela duen janaria da. Ondo jaten jakitea beste kontu bat da, jakina. Denetik jaten ikasi eta irakastea. Bilduma nahiko ez ote dauden? Taberna eta kafetegiak askoz gehiago daude. Eta, sarritan, kale berean gainera. Eta horri ambientea deitzen zaio, ezta?, ez diezaiogun bada beldurrik izan literatur ambientetzarrari.

*Behinola:* Ambiente horretan zu idazle emankorra zara, zure lana estatu osoan irakurtzen eta argitaratzen da. Hala ere, zure liburuak euskarara itzul daitezen saiatzen zara eta bada-kigu interes berezia jartzen duzula ahalegin horretan. Zure liburu asko euskaraz argitaratu dira gaztelaniaz baino lehen. Zer esan diezagukezu honi guztiari buruz? Nola bizi duzu euskal/erdal idazle izatearen kontu hori, bitasun hori? Eta, ba al duzu euskaraz idazteko asmorik, gogorik?

S. C.: Galdera mamitsuari halakoxe erantzuna dagokionez, eta aspaldidanik somatzen dudanez nire lan asko –guztiak izango ahal dira!– euskaraz egotearen kontu horri buruzko nolabaiteko erreparoa, errebobinatu egingo dut.

Nire lehen haur liburua, *Isu, hortzirik gabeko marrazoa*, euskaraz argitaratu zen lehenengo 1984an. Bi izenekin sinatuta irten zen. Harrigarria bada ere zerikusi gutxi izan nuen horretan, eta eraman nintzaten utzi nuen. Hori bai, argitaratzeko lehen aukera izan zen eta beti baloratuko dut hori. Denbora asko joan zen nik gutun bat, argitaletxearen erantzunen bat, jaso aurretik. Bannengoela jakingo ote zuten galdetu nion neure buruari, harrizko gonbidatu sentitzen bainintzen. Eta horren kontra errebelatu nintzen Lizardi sarrira aurkeztuz. Parte hartze hutsarekin gauza bat bakarrik berretsi nahi nuen: lehen liburua argitaratzearekin eman nahi zitzaidan euskal idazle kategoria berretsi nahi nuen, hain zuzen ere. Eta funtzionatu zuela uste dut.

Lehen ere esan dut: argitaratua izatea, hurbi-lenekoek irakur zaitzatzen, inguruko taldeek onar

«Gaur egun merkatu editoriala buffet erraldoi bat dela: asko dago eta denetik. Eta hori txarra izan daiteke ostalari eta tabernarientzat, ez ordea gonbidatuentzat»

«Idazle orok nahi duena argitaratua izatea da, bere hizkuntzan batez ere, baina baita besteenetan ere»

zaitzaten, atsegingarria da. Jakina, nire euskarak ez zuen garai hartan kuota ordaintzeko adina ematen. Baina orduan Joxan Ormazabal ezagutu nuen kuotarik gabeko topagune batean, Elkar argitaletxean. Eta onartua sentitu nintzen han. Uste dut horregatik sartu nintzela uda hartan euskaltegian. Nire lagunekin lagunenez hizkuntzaz hitz egin nahi nuelako, beren hizkuntzan. Haien lanak irakurri ahal izatea nahi nuen, haiek nireak irakurtzen zituzten bezala irakurri nahi nituen. Eta, gainera, banuen nire liburuak non argitaratu. Eta gustatu egiten zitzaidan, zergatik engainatu. Beste idazle batzuk ezagutu nituen, eta euskal haur literaturaren historian murgiltzea interesatu zitzaidan (arteaz idatzi gabea). Eta beka bat eta nik baino askoz ere euskara gehiago zekien adiskide baten laguntzarekin, eta ekipaia erraztu zigun Azkue Bibliotekarenekin, lilurgarria izan zen bidaia. Beharbada, tentaldian erori nintzen lekukotasun harrigarri bezetako munduan –Juan San Martin, Zaitegi, Landart, Arana Martija, Jon Bilbao...– arrotz sentitzeaz uztean. Arrotz nintzen, bai; eta askok behin eta berriz gogorarazten didate hori oraindik. Eta aurrera egin nuen.

Idazle orok nahi duena argitaratua izatea da, bere hizkuntzan batez ere, baina baita besteenetan ere. Harrera hizkuntza izaten hasi zen orduan euskara niretzat. Eta halaxe da gaur ere, nire liburuak gaztelaniaz baino lehenago euskaraz, edo biak batera, argitaratzen direnean. Agian, aurreikusita nuena baino gehiago zabaldu zait topagunea.

Niri dagokidanean, uste dut ez dudala inoiz izan protagonismo grinarik, ezta jokabide mesianikorik ere. Garai hartan euskarazko haur literatura eskaria ikusi nuen, idazle euskaldunekin asetzen zaila zena. Aski da datu bat: Galtzagorriren katalogoa osatzen duten hogeita bi idazleeta-

tik zortzik baino ez zuten orduan lanen bat argitaratua. Eta ni hantxe nengoan, eta nire liburuek bazuten argitaletxea. Tentaldian erortzea izan zen, ez oportunitasoa. Argitaletxeen eskaintzan itzulpena puztuagoa zegoen jatorrizkoa baino (adibidez, *Sor sailak* hamabi izenburu biltzen zituen, *Itzul sailak*, berriz, berrogeita hamar). Nork jartzen zuen zalantzan orduan desoreka?

Itzulpenak direla eta, gogoan dut Coseriuk defendatzen zuela halako edo holako testuren itzulpen egokia hartzaile jakinarentzat, helburu jakinekin eta egoera historiko jakinetan. Eta, beharbada, hizkuntzalari errumaniarrak aipatzen zituen zehazte horiek nire alde nituen orduan. Bestalde, beldur naiz, itzulpenak jatorrizko testuen kontra demonizatzea, ez ote den askotan merkatuan dagoen kompetentziarekiko mesfidantza ezkatzea. Gaur egun ere ikusten baitira itzulpenekiko halako jarrerak, kalitate eza batzuetan eta ezegokitasuna bestetan argudiatuz (nahiz eta, sarritan, itzulpen lana idazle ezagunek egin).

Beste kontu bat da, sakonagoa agian, beste hizkuntzetatik datorrena egokia den ala ez euskal literaturan... Ez naiz baina sartuko kontu horretan. *Obabakoak* liburuaren gaztelaniazko edizioaren sarreran Sarasolak aipatu zuen euskal literatura zer den azaldu beharrezko *arazo ergela*. Haatik, Sarasolak berak azpimarratu zuen Mitxelena esaldi bat azpimarratu nahi dut nik ere: *Kultur alorrean zerbait sortzen duen herriak beretzat eta besterentzat sortzen du...* Ideia honek, Maireren lehengoan bezala, elkarrekotasun asko dago. Honek mantentzen nau euskaraz argitaratzen hain hurbil. Eta, beharbada, nire lanak euskaraz zuzenean inoiz idatziko ez ditudan arren, gogo biziz saiatzen naiz euskaraz irakurtzen dutenengana hurbiltzen nautenen ahalegina bueltatzen. Eta horregatik saiatzen naiz ni

horien lanak gaztelaniaz irakurtzen dutenengana hurbiltzen. Horregatik poztan nau gaur hori egiteko gai izateak, euskaraz idatzitako lanak gaztelaniaz irakurtzen dutenentzat itzultzeko gai izateak.

*Behinola:* Beraz, pozgarria (eta beharrezkoa) da, azkenaldian gertatzen ari den bezala, euskaraz idatzitako lanak itzuli eta esportatzen hasi izana.

S. C.: Berriz diot, literatura –eta beraz, kultura– topagune bat da, eta halaxe behar du. Beste hizkuntzetako literaturarekin abegitsu den hizkuntzak, beste esparru linguistikoe-tan ere abegi egin diezaioten ahalmen eta aukera berberak izan behar ditu. Eta euskarazko haur eta gazteentzako liburuen edizioek beren indar eta lorpenak erakutsi badituzte, nork ukatuko die jatorrizko hizkuntzatik harantzago joateko ahalmena? Gainera, egungo itzulpenen maila onargarria baino areagokoa da, hori garbi dago. Baina hedatzeko grinak baditu arriskuak ere: itzultitako lanak bakarrik direla onak pentsatzearen arriskua, adibidez. Jatorrizko hizkuntzan mantentzen den idazlea edo beste merkatuetan sartzea lortzen ez duena gutxiagotasun sententzioan eror daiteke. Ez al da, ba, horrelako zerbait gertatzen erreseina orrialdeetan edo salduenen zerrendetan norberaren burua ikusi edo ez ikustean? Baina, literatura eta merkaturua nahastea litzateke hori. Eta, harreman estuan egonda ere, bi kontzeptu horiek ez dira gauza bera. Ia guztiok dakigu zergatik irteten garen aldizkarietan, zergatik saltzen diren ale gehiago edo gutxiago, edo nola iristen den EEBBetara. Hori ez da, ordea, litera-



Luis Alonso

tura, jakina, marketinga da hori, eta, kasurik onenean, sari estraliterario moduko bat izan daiteke.

*Behinola:* Lehen aipatu duzun Euskal Haur Literaturari buruzko zure ikerketa 80 hamarkadarainokoa da. Nola ikusten duzu ordutik honainokoaren bilakaera? Nola dago azken urteotako euskal Haur eta Gazte Literatura?

S. C.: Zerbaiten historia kontatzearen eragozpena hori da hain zuzen ere, historia hori zein laster zaharkitzen den egiaztatzea. Sentsazio hori geratu zait niri behintzat, erreferentzia bide bat irekitzea lortu izanarekin batera, *Haur literatura euskaraz* argitaratu ondoren. Gaur edozein liburudendatan, ikastetxetan, irakasleen artean eta baita komunikabideetan ere, ikus daiteke nolako gorakada izan duen Euskal Haur eta Gazte Literaturak: egileak, obrak, ekimenak, erakusleioak... Bi hamarkada eskasetan hirukoiztu egin da idazle zerrenda. Beren aurrekoek izan ez zuten ospe eta etorkizuna dute idazle horietako dexentek. Urtez urte CLIJ-ek jasotzen duen panoramika, Durangoko Azoka den erakusleio handia, Eskoriatzako ekimenak, EIE-renak, FIRA-renak, Galtzagorrirenak... dagoenaren barometro ona dira. Etorkizun itxaropentsua iragartzen duten agentzia editorialak ere badaude. Baina honek ere baditu bere kontraesanak. *Buffetaren* irudira itzuliz, eta oztoporen bat ere aipatzeagatik, agian elikadura-teknikoak falta dira, gehiegikeria eta gabezia mediatikoak kontrolatuko dituzten teknikoak, gutxi batzuk dena jango ez dutela zainduko dutenak, edo, gutxienez, topagunera hurbiltzen direnen

*«Beste hizkuntzetako literaturarekin abegitsu den hizkuntzak, beste esparru linguistikoetan ere abegi egin diezaioten ahalmen eta aukera berberak izan behar ditu»*

aukerak modu txarrez alferrik galduko ez dituztela zainduko dutenak. Tamalgarria izango bailitzateke.

**Behinola:** Zu ere Buffetean zaude...

S. C.: Jakina, baina uste dut, jateko orduan, ez naizela inoiz bulimikoa izan, ezta anorexikoa ere. Martin sukalde xamarra, bai. Eta kosta egiten zait ikusle hutsa izatea, ez dut ordea inolako aukerako menutan agertzeko xederik.

**Behinola:** Eta, Euskal Herritik kanpokoa nola ikusten duzu?

S. C.: Boloniara edo horrelako azokaren batera joaten ez bazara, aldizkari eta liburudendentan jarri behar duzu arreta zer nolako liburuak kaleratzen diren jakiteko. *Harry Potter* edota *Manolito Gafotas*-ek gure garaiko *Los Cinco* edo *Guillermo Brown*-en hutsunea betetzen dutela konturatzeko (bilduma horiek hor jarraitzen dutelako, jakina). Eta horien ondoan, idazle ospetsuen obrak han eta hemen, bildumaz bilduma, erreferentzia handikoak. Hala ere, apustu berrien bat sortzen da sarritan, nahiz eta erakuslehoetan ez ikusi. Bestalde, irakurketa edo irakurzaletasunari buruzko liburu gutxi ei dago. Batek daki kontraesana ez den hainbeste aukera dagoen heinean!

**Behinola:** Tira dezagun beste hari batetik zure sorkuntza prozesua aztertzeko. Zein da zure idazketa prozesua, nolakoa da?

S. C.: Idatzi, oporretan idazten dut. Hau da, ikasturtean zehar ideia bat harrapatzen dut, bueltak ematen dizkiot, laztandu egiten dut eta dokumentatu egiten naiz. Bitartean, ilusioa mantentzen dut, —eskola eta azterketarik gabe— lasai eseri eta idazten hasteko unearen zain. Eta, esku artean gauza gehiegi iza-


teak beldurtu egiten nauenez, azkenerako uzten dut lanik neketsuena: idatzi nahi eta inoiz idazten ez duzun obra hori, bitartean beste batzuk idazteko distira txikiak oparitu dizkizuna.

Fijazio edipikoren batengatik beharbada, arkatzez idaztea gustatzen zait. Eta gorroto diet pantailatxoei, onartzen dut. Ohituraren ohituraz, erreferentzia mordoa pilatzen dut, eta gero pena ematen dit botatzeak. Horrela, batzuetan lan paralelaren baterako erabiltzen ditut: luzaroan egon naiteke, adibidez, piratei buruzko informazioa biltzen, lana bukatu eta, soberan geratu zaidan guztiarekin antologia bat prestatzen hasi, edo pirateriari buruzko historia bat. Nolabaiteko plazerra aurkitu dut prestaketa lanean, idaztearen bezperan. Okerrena da ideia baten atzetik ibili eta inondik inora agertzen ez denean.

**Behinola:** Zerk zaramatza ipuin edo istorio bat idaztera? Eta, honekin lotuta, kasu egiten al diezu argitaletxeetatik egiten dizkizuten eskareei: halako adina, halako gaia, hainbeste folio...?

S. C.: Askotan esaten da; istorioak hortxe daude. Norbaitek harrapatu eta birkonta ditzan prest. Eta horrela izaten da sarritan. Inguruan, komunikabideetan edota geure barruan ezkutaturako sekretuen kimu bat agertzen da, hartu eta laudatu. Besterik ez da kontu horretan, astia eta afizioa erabiliz gero. Sortzen den galdera hau da: «Kontatu al du hau beste inork?» Kasu horretan irteera bat geratzen zaizu: «Bada, neure modura kontatzen saiatuko naiz».

Bestalde, idatzi dudanari buruzko edozein iradokizun onartzen dut argitaletxeetatik. Onartzen dut idazten duenak bere teknika menperatzen badu, argitaratzen duenak, bere lanbideagatik, ezagutzen dituela bere mugak, bere merkatuaren gustuak, bere lehenta-



Jose M<sup>o</sup> Muñoz

sunak. Beraz, beti onartzen dut ezezkoa, batzuetan argitaratzaileen irizpideekin bat etorri ez arren. Onartzen ez dudana da liburu bat neurrira berridatzi beharra, ezta ere halako eta halako planteamendu edo zatiren zentsura.

Ez dut gustuko lanak adin kon-tuetan mugatuak ikustea, baina halaxe dela badakit, eta esleitu di-daten eserlekua onartzen bukatzen dut.

Paradoxikoki, atseginez jasotzen ditut egileen aukeraketak egiteko, edo proiektuei buruzko iri-tziak emateko eskariak. Konfiantzazko bototzat hartzen baitut.

**Behinola:** Sentitzen al duzu merkatuaren presiorik?

S. C.: Hain da nabaria, ezinezkoa baita ez sentitzea. Zeharkako zentsura esate baterako; argitaletxetik, zure planteamenduak onartzearekin batera, irakasleen irizpideak zeintzuk izango diren suposatzeraz jolas egiten duenarena, eta horrelakoak. Eta hor alferrik dira argudioak. Argi dago, badaude lehentasuna duten gaiak, adin-zerrenda beteago edo hutsagoak... argitaletxeak eskaini egin behar dituenak. Beste kontu bat da argitaletxeak, zulo hau edo hura betetzeko, zure lana –moldatu egin beharko litzatekeena– erabili nahi izatea.

Bestalde, salmenta kopuruak daude, argitaratzaileak bere argitarapenen barometro bezala erabiliko dituenak duda izpirik gabe. Eta argitaratzaile bati ezin zaio zuek arriska dadin eskatu. Eskertzekoa da hala egin dezan, jakina, baina ez da hori bere betebeharra. Inork horrela jokatzeko duenean, zuek zuek konfidantza erakusten ari zaitzazu eta orduan zuri dagokizu hari ez huts egitea.



Cristina Losantos

**Behinola:** Zure ustez, ba al da Haur eta Gazte Literaturan gai taburik (sexua, erlijioa –«Pol eta Puy» lanean nolabait agertu zenuena–) edo gutxiegi landu den gairen bat?

S. C.: Bai. Badago ezkutuko nolabaiteko zentsura, ireki-irekian adierazten ez dena, behin liburua argitaratuta beste batzuek ustez egin dezaket hori. Aldez aurretikako zentsura da, argitaletxe jakin bate-

koa delako, hango idazlearena delako, itzulpena edo jatorrizkoa delako... egiten dena. Ikastetxe eta irakasleen zentsura da, eta argitaratzailea konplize da batzuetan eta biktima beste batzuetan.


Eta bestea ere badago, idearioarena; «zenbait gurasori ez zaio gustatuko» edo «ikastetxe batzuetan oztopo izan daiteke» dioena. Halakotan ez da inoiz irakurlearen irizpiderik aipatzen, bitxia, ezta? Eta zentsura honek, bai, badu zerikusia gai edo ikuspuntu tabuekin: heriotzaren gaiak beldurtu egiten du eta, zuzenean zentsuratu gabe, ihes egiten zaio edo modu ez oso ausartez ekiten zaio (istorio batean protagonistaren aitona edo adin bereko laguna hiltzea onargarriagoa da –horregatik da hain ugaria– anai-arreba edo aitaren heriotza baino –errealitatean gertatzen dena baina ez hainbeste liburuetan–). Familia desegituratu edo guraso bakarrekoak, gertuko gatazka politikoa –Latinoamerika edo Europa nazia, hori beste kontu bat da–, hezkuntza sistemari kritika –eta ez naiz umore klabean idatzitako Matildetaz ari–, haur homosexualitatea bezalako sexu gaiak eta kontu eskatologikoak (kaka, ipurdia, puzkarra, pixa...), tratu txarrak... ez dira ageri Stephen King eta antzerakoek horrenbeste enbarazu egingo ez luketen giroan.

*«Asko argitaratzen delako harritzen garenean, sakonean egiten ari garena, argitaratzen dena zein gutxi interesatzen zaigun disimulatzea da»*



**Behinola:** Eta, zeintzuk dira Haur eta Gazte Literaturan ikusten dituzun gehiegikeriak? Eta hutsuneak (adibidez, gozo gehiegi, esplizitazio eta epilogo argiegiak...)?

S. C.: Ez dago gai hoberik edo txarragorik, horiek tratatzeko moduak baizik. Eta kontu honetan, ia ekidinezinak dira topikoak (aitonamonen ontasuna, famili edo eskola armonia, protagonista beraren zintzotasuna...). Baiben efektua eginenez, gehiegi erabiltzen dira istorio hiritarrak, nekazal bizimodua desagertuta balego bezala edo udatiarren kontua balitz bezala; eskola giroko istorioak sarritan errepikatzen dira, ikasgelan irakurtzea ikasgelako bizimoduaz irakurtzea izango balitz bezala. Antza denez, bat--batean desagertu egin da erlijio-egonezina,...; eta batzuetan badirudi irakurle haur eta gazteak tontolapiko zoriontsuak direla. Baina gehiegikeria eta gabezia gehien ez da egileengan ikusten, ezta argitaratzaileengan ere, bitartekariengan baizik, eskariaren eta modaren bultzadapean mugitzen baitira argi erakutsiz beren ikasleen artean sustatu egin beharko luketen literaturarekiko ezagutza eza. Asko argitaratzen delako harritzen garenean, sakonean egiten ari garena, argitaratzen dena zein gutxi interesatzen zaigun disimulatzea da. Denbora ezak edo ikasgelan irakurri behar denarekiko interes urriak fitxak gehiegi erabiltzera garamatzate, edo idazleekin topaketa lar eta inprobisatuegiak antolatzea. Teknikokiago esatearren, uste dut gabeziarik handiena ez dagoela genesian, ezta egituran ere, obraren funtzionamenduan baizik (irakurtzeko moduan). Baina, jakina, honetan ere salbuespen asko eta zoragarriak daude.



Álvaro Sánchez

**Behinola:** Zeintzuk dira, zure ustean, jaso dituzun eraginik handienak? Zein idazle eta obrarenak?

S. C.: Abentura nobelei eta poetei asko zor diet. Bi obra ditut kutun-kutunak: *Altxor uhartea* (eta ia Stevenson dena) eta *Printze txikia*, idaztea gustatuko zitzaidakeen manifestu poetikoa. Baina ezinezkoa zenez, berridatzi egin ditut neure erara, edo modu finagoz esanda, horien egileen omenez. *Esklabo zoriontsuen uhartea* eta *Marrastu arkume bat* horixe dira.

**Behinola:** Bukatzeko, zein liburu gomendatuko zenieke *Behinolako* irakurleei?

S. C.: *Behinola* irakurtzen duen jendeak aurretiaz adierazten du Haur eta Gazte Literaturarekiko borondatezko interesa. Gaiak kezkatzen duen jendea da, nolabait inplikaturata dagoena. Eta horrelako jendeari, zer gomenda dakioke pedantea izan gabe? Agian, aukeratzen ibil ez daitezela esango nieke. Irakurlearen plazerrik handienetako bat libururik maiteena norberak aurkitzea da, edo interesatzen ez zaigunean liburua itxi ahal izatea. Edo gure gustuak ondo ezagutzen dituen lagunen baten aholkuari jaramon egitea, hori bai, baina ez edozein burugaberen aholkuari. Sarritan burugabean kontua baita, edo saltzaileena, onena zer den oihukatzen hastea. Niri lagun bategi aholkatu bide zidan –Italo Calvino izan al zen?– klasikoak berrirakur nitzan, eta deskubritu dut zein interesgarria den zahartzat geneukanaren eta berriaren artean zenbat antzekotasun dauden.

**Behinola:** Tira ba, on egin buffetean, Peter Pan. Eta, badakizu, gure hau ere topagune duzu. Eskerrik asko.

Jon Suarez

## Bibliografia

Liburuon lehen argitarapena zein hizkuntzatan, halaxe jarri ditugu hemen izenburuak. Parentesi artean jarri dugu zein hizkuntzatarantz zuzuli diren lanok.

- *Lecturas animadas*. Mensajero, 1988.
- *Todo está en los cuentos*. Mensajero, 1992.
- *Literatura infantil vasca*. Mensajero-ICE, 1988. (Itz.: eusk.)
- *Ipuinen tailerra*. Labayru, 1999.
- *El mono Chimino*. La Galera, 1983. (Itz.: eusk., kat., gal. eta arag.)
- *Ixu, hortzik gabeko marraxoa*. Erein, 1984. Elkar, 1993. (Itz.: gazt.)
- *Bazen behin marin el bat*. Elkar, 1986.
- *Hain da triste la vie du touriste*. Elkar, 1986.
- *Behoko eskola, goiko eskola*. Elkar, 1986.
- *Dado iratxoa*. Elkar, 1986. (Itz.: gazt.)
- *Pinpilinpauza gardena*. Edelvives, 1988. (Itz.: gazt.)
- *Anixiaren liburua*. Edelvives, 1990. (Itz.: gazt.)
- *Polypuy*. Didascalía, 1990. (Itz.: eusk.)
- *Bakarnek ez du lagunik*. Elkar, 1991.
- *Hamster bi kaiola baten barruan*. Ziaboga, 1991. (Itz.: gazt.)
- *Sator jator jauna*. Mensajero, 1991. (Itz.: gazt.)
- *Nire bizikleta eta ni*. Elkar, 1992. (Itz.: gazt., kat., gal.)
- *Un pueblo trashumante: los gitanos*. Mensajero, 1993. (Itz.: eusk., kat.)
- *Los ayunos de la reina Ester*. Miraguano, 1994. (Itz.: eusk.)
- *Ni zu banintz*. Giltza, 1994. (Itz.: gazt.)
- *Ortzi eta Kukuma* (zortzi album). Ibaizabal, 1994.
- *El rey Sonajero*. Gaviota, 1994. (Itz.: eusk.)
- *Basajaun, el señor del bosque: cuentos y leyendas populares vascos*. Gaviota, 1995. (Itz.: eusk.)
- *Querido sapo*. Edebé, 1995.
- *Si te mueres ya verás a dónde vas*. Edelvives, 1995. (Itz.: eusk.)
- *Etorriko zara nirekin?* Desclée, 1996. (Itz.: gazt.)
- *Aitatxo balkoian dago*. Desclée, 1997.
- *Pirata joko*. Elkar, 1997. (Itz.: gazt.)
- *¿Por qué a Mari Jose la llaman José Mari?* (Itz.: sei hizkuntzatan.)
- *La isla de los esclavos felices*. Espasa Calpe, 1998. (Itz.: eusk.)
- *Los bandidos del mar. Breve historia de la piratería*. Espasa, 1999.
- *Marrastu arkume bat*. Desclée, 1999.
- *Musikaren plaza*. Gero, 1999.

## Sariak

- «Ignacio Aldecoa» saria, 1981.
- «Lizardi» saria, 1985 (*Dado Iratxoa*).
- «Pío Baroja» sariketan akzesita (*Los ayunos de la reina Ester*).



Elena Odriozola